

Israelen hebraieraren egoera aztertzeaz bat, hizkuntza hau zelan irakasten duten eta herri mailan eta jakintza mailan nola erabiltzen duten. Bertatik euskararentzat probetxugarri izan daitekena da haiek herri-mailarako erabiltzen duten hebraiera arrunta. Herrian zabalkundea izango duen hizkuntza xumearen beharra ikusten duela, edozein mailatako eskalduna alfabetatzeko eta euskararik ez dakitenek ahalik errazten eskalduntzeko, goragoko maila jakituenentzat utziaz.

J. Intxausti jaunak, maila arrunterako oinarrizko metodologia gertatu duen batzorde bat izendatzea eskatzen du, I. Berriatuaren azterketa lanak eta bere proposamenak eskatzen duenez. Batzorde gisa, lehen ekin-tzan hasteko, honako izen hauek eman dira: I. Berriatua bera, X. Mendiguren, J. R. Etxebarria eta Iñaki Azkune jaunak. Hitz eta aditz arruntenen maiztasun estudiatzen hasi dezaten, gero metodo bat burutu ahal izateko.

f) NI NAIZ ETA I AIZ:

A. Zatarain jaunaren txostena, "Ni naiz eta i aiz" gaiari buruzko, J. Haritschelhar jaunak irakurria. Ondorean elkarriketa izanda, zenbait ohar agertuz. Jartzen dituen adibideak ez bai dira era berekoak, A. Zatarain jauna bera etorri ez denez, urrengo berarekin (berak hala nahi baldin balu) elkarriketa jarraitzea eskatu da.

g) BAKOITZAK DAKARRENETIK:

Bakoitzak dakarrena ekar lezakeanez, X. Kintana jaunak ikurriña ekarri du, eta Zuzendaritzakoei eskaini dio, Euskaltzaindiarentzat erregalatu. Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - II - 26

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko otsailaren 26an, arratsaldeko lauretan bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, E. Erkiaga, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; X. Aranburu, I. Beobide, I. Berriatua, J. Garmendia Kortadi, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, J. M. Iriondo, X. Kintana, E. Knörr, M. Lasa, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, J. Oregi, P. Uribarren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

J. M. Barandiaran, J. L. Davant, X. Diharce, J. Gorostiaga, J. Idiart-Urruti, A. Irigaray, F. Krutwig, A. Labayen, P. Larzabal, M. Lekuona, J. M. Lojendio, L. Mitxelena, M. Olasagarre (A. Damaso Intza-koa), A. Zavalá eta A. Zarranz (A. Polikarpo Iraizoz-koa) euskaltzain jaunek ezin etorria adiarazi dute, goizeko batzarrera ere etorri ezinak bozetarako beren poderioak emanaz.

Ohi den otoiitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrileko batzar agiria onartu da.

a) HAR-EMANAK:

Herri eta herritarren lehen bi zerrendak EUSKERA aldizkarian argitaratzeaz eta hirugarren zerrenda kontseilarien artean zabaltzeaz kontu eman da. Hirugarren zerrendak eskualde hauk hartzen ditu: Mendebaleko Lautada, Busturia, Urolaldea, Baztan-Bidasoa, eta Elortz-Esteribar.

Barcelona-ko Institut d'Etudis Catalans eta Omnium Cultural elkar-teen antolaketaren kontu eman da. Bertako eraketak diruzko laguntza hobeak dituztela, baina erakundeak heurak hemengoekin dinamika edo eragin handia falta dutela. Era berean, Congrès de Cultura Catalana delakoa zertan datzan.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du eta Gipuzkoako Saltzaileen Elkarte Ofiziala, L. Mitxelena, P. Lafitte, J. Haritschelhar, Jose Harrieta, Gordailu eta Gero-koei eskerrak ematea erabaki da.

Diruzainak 1976ko Urria-Abendua hilabeetako kontuen berri eman du, zegoen 1.036.586,02, gehitua 1.113.096,20, urritua 1.261,084,24; dagoena 888.597,98.

Arabako Foru Diputazioak euskararen ofizialkidetasuna onartu du eta euskararik gutien egiten den probintzia honetatik izan dugun berri pozgarri honegatik, gure zorionak agertzea erabaki da. Hemendik bide hartuz Alfonso Irigoien euskaltzain jaunak gogoarazten du Gernikako Batzarretan ere, karlisten lehen gerratean, horrelako lege mailatasuna iritsi zuela euskerak, gero horrek segirarik izan ez bazuen ere.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Idazkariak goizean izan diren bi bilkuren berri eman du. 11 euskaltzain bildu dira eta beste 13k beren ezin etorria agertu dute, euskaltzain berria hautatzeko beren poderioak idazkiz bidaliaz.

Lehendabizi, Gobernuko Lehendakariari euskeraren ofizialkidetasunaren eskariz gertatu den gutuna irakurri da eta bizpairu ikuturrekin guztiok onarturik bukatu da, berehala bidaltzeko.

1977ko Txomin Agirre eleberri sariaren arautegiko lehen pundua aldatzea erabaki da, "Euskaraz" hutsik utziaz.

A. Arrue zenaren hutsartea betetzeko hauteskundeak egin dira, aurkezturik zeuden bi proposamenen artean. Enrike Knörr jaunak 13 boto eramanez eta Ambrosio Zatarain jaunak 10. Beraz, E. Knörr jauna euskaltzain izendatua gelditu da. Ondoren, euskaltzain ohorezko izendatzen dira Jokin Zaitegi eta Fernando Aire "Xalbador" (azkeneko hau berriki hila).

J. L. Davant jaunaren gutuna irakurri da, J. Hiriart-Urruti jaunaren sarrerara hitzaldiari buruz. Hazparnen izanen da, martxoaren 27an, eta egun hortarako jartzen da helduden hileko gure batzarra.

Euskara-Kaukaso ikerketak aurrera eramateko Georgia-ko Zientzi Akademiaren eskaintza bat dugu eta langintza honen hastapenetan sartzeko izan den bilkura baten berri eman da. Hizkuntzari dagokion aldetik, Euskaltzaindia ere partaide izanen da.

Ipurbeltz deritzan komika, haurren aldizkariaren premia gorria ikusirik, baimen kontuak lortzeko babestea erabaki da.

Bigarren bilkuran, euskaltzainak, oinarrizko euskara finkatzen hasteko izendatu zen batzordekoekin elkartu dira. Lanaren plangintzari buruz mintzatu ondorean, Imanol Berriatua jauna izendatu da batzorde honen buru, eta J. J. Zearreta idazkari. Gainera, batzordeari beste honako hauek gehitzea pentsatu da, Ikastolen Federazioko bat (berek hautatzen dutena, testugintzan ibili direnetarik), "Egin" en arduradun den Donato Unanue eta Donostiako Herri Irratiko Iñaki Zubizarreta jaunak.

d) 1977-1978 URTEBIKOARI BEGIRA:

Euskaltzainburuaren txostena, egoera, lanak, asmoak eta helburuak adiaraziaz honako puntu hauetan banatu du bere agerpena: Legezko nortasuna, politika giroaren aldatzeaz, euskararen ofizialkidetasunaz, diru egoeraz, etxe berriaz, Oinarrizko "Olakua" torretxeaz, Mitxelenaren Hiztegi-az, Hiztegi Arau Emaila eta Entziklopedikoaz, Euskararen Liburu Zuria, Euskaltzaindiaren liburu saila, "Euskera" aldizkaria, Euskaltzaindiaren liburutegia, Donostiako Ordezkaritza eta Bulegoa, beste Ordezkaritzak, Hiztegi espezializatuak bultzatzeaz, Etxegintza batzordearen egoera, pertsona izendegia, aditz batzordearen egoera, Herri eta herritarren izendegia, Oinarrizko euskara, Iker eta Jagon saileko lan batzuen beharraz eta Batzar txostenari buruz.